

Euskal sagardoa sustatzen jarraitzen dugu

UDA ETA UDAZKENA DIRA GURE JATETXE ETA TABERNETAN EUSKAL SAGARDOA DASTATZEKO GARAIRIK ONE-NAK. Hori dela eta, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek eta Gipuzkoako Ostalaritza Elkar-teak, beste behin, 'Sagardoak Elkarten Gaitu' sustapen kanpaina jarri zuten martxan irailaren 18an Donostian eta Gipuzkoan, Euskal Sagardoarekin elkarlanean.

Euskal Sagardoa, jatorri-deitura duen sagardo naturala da, %100 Euskal Herriko sagarrekin egina. Kanpainaren helburua, halaber, kapela gorri edo urre kolorekoa duen sagardoaren kontsumoa sustatzea da.

Euskal Sagardo botila kontsumitzen duen bezero bakoitzari/taldeari txartel bat emango zaio. Alde batetik, txartel horretan 'harraskatu eta irabazi' formatua egongo da eta bezeroak sariak lor ditzake momentuan. Bestalde, txartel



Sagardoa sustatzeko ekimenaren aurkezpenean hitza hartu zuen gure elkarteko zuzendaritza-batzordeko kide Arantxa Ciaurizek.

berean emaila jartzeko aukera izango du bezeroak, eta horrela sari segurua jasoko du helbide elektronikoan.

Kanpaina urriaren 31ra arte egongo da indarrean Gipuzkoako taberna eta jatetxe ezberdinetan. Sustapenean parte-hartzen duten establezimenduak atean kokatutako

bereizgarrien bidez identifikatu ahal izango dituzu. Pasa den irailaren 7an, Donostiako Trinitate plazan, ezagutarazi zen ekimena 2021eko sagar uztaren aurkezpenarekin batera. Arantxa Ciauriz, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko zuzendaritza-batzordeko kideak azaldu zuen moduan, "gure gastronomiaren ezau-

garrietako bat eskaintzaren egiazkotasunean datza, eta horretarako bertako produktuen erabilera ezinbestekoa da. Horregatik, elkartek urteak daramatza ostalarien artean lurraldeko produktuen erabilera sustatzen, besteak beste Eusko Jaurilaritzaren eta Gipuzkoako beste erakundeekin elkarlanean".